



Eneko Olasagasti

♦ ZINEMAGILEA

Euskal zinemaren loraldiaz

GAI HONEN INGURUAN ez dezala bere burua inork engaina. Hemen ez dago magiarik, nahiz eta zinemak magiatik asko izan. Azken batean, gezurren bitartez egia propioa sortzea da haren zeregina, eta egia baino gehiago egiantzekotasuna. Ez da beraz, berez sortzen den zerbait. Atzean arrazoi, bitarteko eta lan asko dago, baita bilakaera ere. Zuzendari, gidoilari, aktore eta tekniko askoren talentuaz gain noski.

Baina, badirudi, Donostiako Zinemaldian Sail Ofizialean parte-hartzea, Goya-tarako izendapenak lortzeko eta antzekoak balio berezia ematen diotela azken uztari. Eta bereziki *Loreak* filmari. Baina Moriartitarren filmaren aurretik beste batzuek lan beltza egin izan ez balute tabuak eta aurreiritziak hautsiz Garaño eta Goenagaren filmak *Zabaltegin* izango zuen bere tokia? Hau da, betikoa, hamar film txar egin behar dira bikain bat lortzeko. Eta horrek, berriz diot, ez dio baliorik kentzen filmari. Merezi zuelako ere badago hor. Baina baita ere, beste bederatzik bidea egiten lagundu diotelako.

Eta horretarako baldintza batzuk eman behar dira. Eta baldintza esaten dut ezen ez laguntza. Eta gure arloan nazka-nazka eginak gaude negarti famaz. Zeren zein da laguntzarik ez duen arloa gaur egun? Kotxea edo etxeko leihoak aldatzeagatik ere ematen dira eta. Ikus-entzunezkoetan inbertitzen den euro

bakoitzetik hiru bueltatzen dira modu batera edo bestera. Dohainik ezer ez, beraz.

Erakundeek ez dute ezertxo ere dohainik edo bere kabuz ematen. Azken urteetan egindako filmak egin ahal izateko lortutako baldintzak arloko zenbait era-

Gure arloan nazka-nazka eginak gaude negarti famaz. Zeren zein da laguntzarik ez duen arloa gaur egun? Kotxea edo etxeko leihoak aldatzeagatik ere laguntzak ematen dira eta. Ikus-entzunezkoetan inbertitzen den euro bakoitzetik hiru bueltatzen dira modu batera edo bestera. Dohainik ezer ez beraz

gileen borrokari esker izan dira, ekoizleak, aktoreak, gidoilariak... Batetik, Jauraritzak bereziki sortutako laguntzak euskaraz ekoizteko, Madriletik hizkuntza ofizial gutxituetan gauza bera egiteko, eta azkenik, EITBk, %6aren lege famatuak behartuta, zeregin horretara bideratutakoa. Gertatu dena, hein handi batean, horri esker izan da. Zeren talentua beti esan dugu dagoela, baina ez da beti talentu hori garatzeko laguntzarik egon, ordea. Kontua da zein neurritan eutsiko zaion baldintza horiei hurrengo urteetako uztak emaitza berdinak eman ditzan. Hamar filme-

tatik bikain edo oso on bat.

Beste kontu bat da zerk lortzen duen nabarmen-tzea. Eta horretan uste dut bide luzea dugula oraindik egiteko. Zeren *Loreak* filmari batera meriturik kendu gabe, garbi dago *Lasa eta Zabala* filmak eskaintzen duen gordintasuna irenstea zailagoa dela, zenbaitzuentzat bederen, eta meritu zinematografikoetan lehenengotik oso urrun ez badago ere, eskaini zaion arreta mediatikoan ez dago alderik. Arrazoiak denok ezagutzen ditugu. ■

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015

www.bertsozale.eus/araba

5. FINALAURREKOA

OTSAILAK 28, larunbata, 17:30ean

ZIGOITIA, Kultur etxean

Gai-emallea: Oier Suarez Hernando

Babesle nagusiak:

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alaia.net

LABORAL
kutxa

Vital gizarte ekintza

artepan

Udala:

Antolatzailea:

argia

Manex
Agirre
Amriolabengoa

Unai
Mendibil
Etxebarria

Poru
Abarategi
Samonandia

Asier
Rubio
Hidalgo

Iñaki
Vilaspre
Simon

Felipe
Zelaita
Txurruka